

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Onestea 2024an bi urtekoen gela zerbitzua emateagatiko dirulaguntza deialdia

BDNS (Identif.): 790594.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: (<https://www.infosubvenciones.es/bdns-trans/GE/es/convocatoria/790594>).

2024an bi urtekoen gela zerbitzua emateagatiko dirulaguntzak deitzen dituen tokiko gobernu batzarraren erabakiaren laburpena.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Haren testu osoa Dirulaguntzen Datu base Nazionalean kontsulta daiteke; https://www.araba.eus/botha/Boletines/2024/041/2024_041_01067_C.pdf.

Lehenengoa. Onuradunak

Eusko Jaurlaritzak homologatutako eta itundutako zentro pribatu guztiak, baldin eta Amurrioko udalerrian kokatzen badira eta bi urtekoen gela zerbitzua ematen badute.

Bigarrena. Xedea

Deialdiaren xedea izango da Amurrioko ikastetxe ez publikoetako bi urtekoen geletan ematen diren hezkuntza zerbitzuak arautzea, baldin eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren ezagutza eta baimena badute.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Dirulaguntzen oinarri arautzaileak aurrekontua betearazteko udal arauaren VII. kapituluan jasota daude, eta 2024ko apirilaren 10eko ALHAOn (41. zk.) argitaratu ziren. Horien artean dago 36. oinarria. Bi urtekoen gela zerbitzua emateagatiko dirulaguntzak emateko oinarrien berariazko ordenantza.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdia 51.000,00 euroekin dago hornituta.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Epea deialdia argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta hilabetean amaituko da, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta.

Amurrio, 2024ko urriaren 14a

Alkatea

JOSE RAMÓN MOLINUEVO LAÑA